

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O) **2021eko irailaren 25tik urriaren 1rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/09/25

- **BARNE MINISTERIOA. – Mugak.** - INT/1005/2021 Agindua, irailaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua. Agindu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren eta osasun publikoaren arloko arrazoiengatik. **15536 xedapena - 2 or.**

2021/09/27

- **ESKUBIDE SOZIALEN ETA 2030 AGENDAREN MINISTERIOA. - Antolamendua.** - DSA/1009/2021 Agindua, irailaren 22koa, Haur eta Nerabeen Partaidetzako Estatuko Kontseilua sortzen duena. **15312 xedapena - 14 or.**

2021/09/29

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Langileen Estatutua.** - 12/2021 Legea, irailaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen den urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duena, plataforma digitalen esparruan, banaketan aritzen diren pertsonen laneko eskubideak bermatzeko. **15767 xedapena - 4 or.**
- Premiazko neurriak. 18/2021 Errege Lege-dekretua, irailaren 28koa, enplegua babesteko, ekonomia suspertzeko eta lan merkatua hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa. **15768 xedapena - 38 or.**
- **BARNE MINISTERIOA. - Segurtasun pribatua.** - INT/1019/2021 Agindua, irailaren 27koa, zeinaren bidez ezohiko neurriak hartzen diren segurtasun pribatuko zaintzaileen prestakuntza iraunkorraren alorrean, COVID-19ak eragindako osasun krisiko egoeraren ondorioz. **15769 xedapena - 2 or**

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. - Lanbide arteko gutxieneko soldata.** - 817/2021 Errege Dekretua, irailaren 28koa, 2021erako lanbide arteko gutxieneko soldata ezartzen duena. 15770 xedapena - 5 or.
- **Enplegu Sistema Nazionalea.** 817/2021 Errege Dekretua, irailaren 28koa, Enplegu Sistema Nazionaleko enplegua aktibatzeke programa komunak arautzen dituen. 15771 xedapena - 65 or.
- **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOA. - Kanpo merkataritza.** - ICT/1020/2021 Agindua, irailaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen den abuztuaren 1eko 679/2014 Errege Dekretuak onetsitako Defentsa materialaren, beste material batzuen eta erabilera bikoitzeko produktuen eta teknologien kanpo merkataritza kontrolatzeko erregelamenduen I.1 eranskina. 15772 xedapena - 7 or.

2021/09/30

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. - Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana.** - HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistema eratzen duena. 15860 xedapena - 50 or.
- **Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** - HFP/1032/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez onesten den, zergen alorrean, kontu korronteko sisteman sartzeko eskaera eta horri uko egiteko jakinarazpen ereduak, eta horiek aurkezteko modua, baldintzak eta prozedurak arautzen diren. 15862 xedapena - 4 or.
- **Katastroko informazioa.** Ebazpena, 2021eko irailaren 28koa, Katastroko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez zehazten diren Higiezinaren Katastroaren Legearen testu bateginean (martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia) ezarritako jakinarazpen prozedurak izapidetzeko zehaztaperen eta baldintzak. 15863 xedapena - 2 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/09/28

- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2021/1722 (EB) Erregelamendu Delegatua, 2021eko ekainaren 18koa, zeinaren bidez osatzen den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/2366 (EB) Zuzentaraua, jatorriko eta harrerako estatu kideetako agintari eskudunen kooperaziorako eta informazioa trukatzeko esparrua zehazten duten erregulazioko arau teknikoei dagokienez, ordainketa erakundeen eta mugaz gaindiko ordainpeko zerbitzuak eskaintzen dituzten diru elektronikoko erakundeen ikuskapenaren testuinguruan. **L 343/1 xedapena - 30 or.**

2021/09/29

- **ERABAKIAK.** - Kontseiluaren 2021/1725 (EB) Erabakia, 2021eko irailaren 24koa, berriz ere luzatzen duena 2020/430 (EB) Erabakiaren bidez ezarritako Kontseiluaren Barne Araudiaren aldi baterako salbuespena, COVID-19aren pandemiaren ondorioz Batasunean bidaiatzeko dauden zailtasunak kontuan hartuta. **L 344/5 xedapena - 2 or.**
- **ERABAKIAK.** - Batzordearen Erabakia, 2021eko irailaren 16koa, Osasun Larrialdien aurrean Prestatu eta Erantzuteko Agintaritza sortzen duena (2021/C 393 I/02). **C 393 I/3 xedapena - 6or.**

2021/09/30

- Akats zuzenketa, honako gomendio honena: Batzordearen 2021/1433 (EB) Gomendioa, 2021eko irailaren 1ekoa, COVID-19ak erakusten duen mehatxuaren testuinguruan adostasuna ebaluatzeko eta merkatua zaintzeko prozedurei buruzkoa (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 310, 2021eko irailaren 2koa). **L 345/45 xedapena - 1 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - BILBAO